

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

3793

AGINDUA, 2021eko ekainaren 22koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraioaren sektoreko elkarte profesional eta enpresariari laguntzak emateko deialdia.

Euskadiko garraio-politikaren helburuetako bat garraio arloko elkartegintza sustatzea izanik, behar-beharrezkoa da elkarte profesional eta enpresarialen jarduerak eta ekimenak bultzatzea, batez ere, elkarteak osatzen dituzten bazkideen interes profesional eta ekonomikoak erkidegoan, erkidegoz gaindi eta Europa mailan ordezkatu, babestu eta koordinatzeko direnak, eta garraiolarien lana garatu eta baldintza hobetan egin ahal izateko bideratzen direnak.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren Aginduaren bitartez onartu zen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta dago laguntza-programa hau. Euskadi.eus-eko egoitza elektronikoan dago Plana eskura. Horregatik, laguntza-programa Euskal Autonomia Erkidegoko helburu, estrategia eta jardura-lerroen ondorio da; Euskal Autonomia Erkidegoko garraio-sistemaren euskarrietako bat, hain zuzen ere, elkarte profesional eta enpresarialak ditugu, garraioen arloan eskumenak dituzten administrazio publikoen eta garraio arloko ekonomiako eta gizarteko eragileen arteko harreman eraginkorrerako funtsezko direla erakutsi baitute. Elkarte horiek betetzen duten paperaren garrantzia oso nabarmena da, batez ere garraio arloak Euskadin duen egituraketa eskasa kontuan izaten badugu; gogoan izan behar baita gurean enpresa txiki asko dagoela.

Horiek horrela, Eusko Jaurlaritzak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bidez, errepideko garraioaren arloan elkartegintza bultzatzeko neurriak hartzen jarraitu nahi du, eta horretarako, ezinbestean, ezarritako helburuekin bat etorriko diren laguntzak emateko sistema arautu beharra dago.

Agindu honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan errepideko garraioaren arloan elkarte profesional eta enpresarialentzat laguntza ekonomikoak emateko era bat ezartzea, elkarte horiek, garraio arloak dituen zenbait gabezia neurri batean konpontzeko beharrezko diren ekimenak abiarazi ditzaketela uste baita.

Euskal Autonomia Erkidegoaren 2021. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen otsailaren 11ko 1/2021 Legeak baimendutako kredituen arabera, honako dirulaguntza-deialdi honek nahikoa aurrekontu-estaldura dauka.

Ondorioz, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 4.1 artikulua ematen didan aginpidea erabiliz, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren – azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaz onartutakoaren– VI. titulua eta VII. tituluko II. eta III. kapituluak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ordaindu beharreko laguntza eta dirulaguntzei aplikatu beharreko gainontzeko xedapenak kontuan harturik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da 2021eko ekitaldirako laguntza ekonomikoen deialdia egitea, honako hauekin lotuta: prestakuntza-ekimenak eta azterlanak egitea, garraioarekin lotutako albisteak zein ekimenak sustatzeko eta hedatzeko ekintzak, garraioei buruzko azokak eta ekitaldiak antolatzea edo horietan parte hartzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraioaren sektoreko elkarte profesional eta enpresarialen langile- eta funtzionamendu-gastuak.

2.– Agindu honetan ezarritako laguntzak emateko, ehun mila (100.000,00) euroko diru-zenbatekoa baliatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako izendatutako kontu-sailetik hartua.

2. artikulua.– Erakunde onuradunak eta betekizunak.

1.– Oro har, agindu honetan arautzen diren laguntzak jaso ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte profesional eta enpresarialek, haien federazioek eta konfederazioek, eta errepideko garraioaren eta jarduera osagarrien sektoreko kooperatiben federazioek eta konfederazioek honako eskakizun hauek bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean:

- a) 2021eko urtarrilaren 1a baino lehenagotik legez eratuta egotea.
- b) Elkartearen egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.
- c) Errepideko garraioaren arloko interes sozio-ekonomikoen defentsa eta ordezkaritza bakar-bakarrik izatea elkartearen helburua.
- d) Irabazteko xederik ez izatea.
- e) Jardun-eremua Euskal Autonomia Erkidego osora zabaltzea.
- f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, bai eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere.
- g) Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penalik edo administratiborik ez izatea, ez eta horretarako legezko inolako debekurik ere (Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barnean hartuta daude).
- h) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 3 artikuluan jasotako debekuetako batean ere ez egotea.

2.– Aurreko paragrafoan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten eta Euskal Autonomia Erkidegoaz gaindiko edo Europako eremuko batasun, federazio edo bestelako erakundeetan sarturik dauden elkarteek ere sartu daitezke laguntza hauek, Euskal Autonomia Erkidegoaz gaindiko edo Europako eremuko ordezkariak eragindako gastuak ordaintzeko.

3. artikulua.– Laguntzekoak diren gastuak eta gehieneko kopuruak.

1.– 2021. urtean, eta gehienez ere % 70eko mugaraino, honako gastu hauek lagunduko dira:

a) Garraio-sektorearen jardueran aritzeko baldintzak sustatu eta hobetzeko azterlanak eta prestakuntza-jarduerak, aurrez arreak zein telematikoak, bai eta elkartearen jarduerak eta garraioarekin lotutako albisteak sustatzeko eta hedatzeko ekintzetarako direnak ere.

b) Garraio-azoka eta -lehiaketetan -autonomikoetan, estatukoetan edo nazioartekoetan- parte hartzera edo antolatzea zuzendutakoak, aurrez arrekooak zein telematikoak, ekitaldi bakoitzeko bi ordezkari gehienez ere. Ez dira kontuan hartuko bidaiaren gastuak (garraioa, ostatua, dietak, etab.).

2.– 2021. urtean, eta gehienez ere % 50eko mugaraino, honako gastu hauek lagunduko dira:

a) Langileen gastuak, kaleratzeengatiko eta erretiro aurreratuengatiko kalte-ordainak izan ezik.

b) Helburuak lortzearekin lotutako funtzionamendu-gastu hauek:

– Erakunde eskatzailearen ohiko jarduera gauzatzen den egoitzen errentamenduak.

– Erakunde eskatzailearen organoetako kide ez diren profesional independenteen zerbitzuak.

– Aseguru-primak.

– Komunikazioak.

– Hornidurak.

– Beste erakunde batzuetako kide izateagatik ordaindu beharreko kuotak.

3.– Honako hauek izango dira diruz lagundu daitezkeen gehieneko zenbatekoak gastu-konzeptu bakoitzerako:

a) 6.500 euro, 3. artikuluko 1. apartatuko a) kontzeptuan adierazitako gastu osoan.

b) 3.500 euro, 3. artikuluko 1. apartatuko b) kontzeptuan adierazitako gastu osoan.

c) 7.500 euro, 3. artikuluko 2. apartatuko a) kontzeptuan adierazitako gastu osoan.

d) 7.500 euro, 3. artikuluko 2. apartatuko b) kontzeptuan adierazitako gastu osoan.

4.– Diruz lagundutako gastuek azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedaturikoa bete beharko dute. Onuradunek dirulaguntzen ekintza guztiak egitea azpikontratatu ahal izango dute, aipaturiko 38/2003 Legearen 29. artikuluan eta hura garatzeko erregelamenduaren 68. artikuluan, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan seinalatutako mugekin.

4. artikulua.– Dirulaguntzaren kuantifikazioa.

Agindu honetan araututako laguntzak banaketa proportzionalaren sistemari jarraituz banatuko dira; hau da, 6. artikuluan adierazten diren irizpideen arabera egindako balorazioaren proportzioan banatuko da dirua, betiere gehienez ere zenbat eman daitekeen edo, eskatutakoa gutxiago bada, zenbat eskatu den kontuan hartuta.

5. artikulua.– Balorazio-batzordea.

Eskabideak aztertzeko balorazio-batzorde bat sortuko da. Batzorde hori Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko hiru teknikaririk osatuko dute eta Garraio Planifikaziorako zuzendariaren Ebazpenaren bidez izendatuko dira. Batzordearen lana izango da, batetik, aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzea, Agindu honen 6. artikuluan ezarritako irizpideak kontuan hartuta, eta Garraio Plangintzaren zuzendariari aurkezteko ebazpen-proposamena prestatzea. Proposamen horretan, laguntzarik eman behar bada, onuradun bakoitzari zenbat dagokion adierazi beharko da, eta emandako dirulaguntzak behar bezala erabiltzen direla bermatzeko agindu honetan aurreikusitako beste edozein baldintza ere jaso ahal izango da. Balorazio-batzordea

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoaren araberako osatuko da.

6. artikulua.– Eskabideak ebaluatzeko irizpideak.

Laguntzaren zenbatekoa zehazteko –betiere 3. artikuluan ezarritako mugaren barruan–, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan egiaztatzen duen ezarpen-maila; horretarako, kontuan hartuko da zenbat pertsona, enpresa elkartu eta ibilgailu biltzen dituzten euren sektorearen esparruan (puntuazio osoaren % 35 gehienez).

b) Elkarrekin sustatu eta garatutako jardueren garrantzia eta kopurua. Horretarako, egindako azterlanen, prestakuntza-jardueren, argitalpenen eta sustapen-ekintzen kopurua eta garrantzia hartuko dira kontuan, bai eta azoka eta lehiaketetan parte hartzea ere (puntuazio osoaren % 50 gehienez).

c) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jarduerak; horretarako, honako hauek hartuko dira kontuan: berdintasun-planak egotea, garraioaren sektorean emakumeen eta gizonen tratu-berdintasuna sustatzeko eta bermatzeko neurriak egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzak erakunde gisa onartua izatea, eta zuzendaritza-organoetako emakumeen ehunekoa (puntuazio osoaren % 15 gehienez).

7. artikulua.– Laguntzak izapidetzea.

1.– Laguntzen izapidetze elektronikoa Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan arautzen da.

2.– Nahi dutenek baliabide elektronikoen bidez egin behar izango dituzte eskaera, kontsultak eta prozedurako izapide guztiak.

Laguntza hauek izapidetzeko baliabide elektronikoen erabiltzeko zehaztasunak [euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)-eko atal honetan jarriko dira: <http://www.euskadi.eus>

8. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta lekua, eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa, non izapideak egiteko jarraibideak eta ereduak eskuragarri dauden eta eskabide-inprimakian sartzeko aukera ematen duen, helbide honetan eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0029306>

Eskabidearen ondorengo izapideak, jakinarazpenak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «nire karpeta»ren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egoitza elektronikoko identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Elektronikoki izapidetu ahal izango da, ordezkari baten bidez. Horretarako, ordezkariak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ahalordetzeen erregistro elektronikokoan inskribatu ahal izango da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarik>

2.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Eskabidea erakundearen legezko ordezkariak sinatu beharko du, eta honako agiri hauek batera aurkeztu beharko da:

a) Erakundeak ekonomia-ekitaldian burutu dituen edo burutu nahi dituen jarduera eta ekimenei buruzko memoria zehatza, hirugarren puntuan aurreikusitakoari jarraituz lagundu daitezkeen gastuak azalduko dituena. Memoria horretan, ondoko zertzelada hauek guztiak jasoko dira: jarduerak burutzeko datak, giza baliabideak (langileak) eta baliabide materialak (lokalak, bulegoak, etab.), elkartekideen edo bazkideen kopuru eta zerrenda, ekitaldirako sarrera eta gastuen aurrekontua, helburu bererako lortutako dirulaguntzak, eta laguntzaren premia eta zenbatekoa ebaluatzeko baliagarriak izan daitezkeen gainerako kontu guztiak, II. eta III. eranskinetan datozen eredu arabera. Eredu horien egitura eta edukia jarraitzen ez bada, artikuluko 4. paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da.

Zehazki, 3. artikuluko 1. paragrafoko a) eta b) epigrafeei dagozkien gastuak modu zehatzean justifikatu beharko dira honako alderdi hauek jasotzen dituzten dokumentuak erantsiz, bai eskabideak aurkezteko datan gastua sortzen duen jarduera egin denean, bai 2021. ekitaldirako aurreikusita dagoen jarduera bat denean:

– Data eta tokia, elkarreak ekintzan egindako ekarpena (parte-hartzailea edo sustatzailea), parte-hartzaileen kopurua, xedea eta zenbatekoa (eurotan).

b) Eraketa-aktaren kopia eta administrazio-organo eskudunak ikus-onetsitako estatutuen kopia.

c) Erakundea batasun, federazio edo bestelako erakunderen batean sarturik dagoela egiaztatzen duen agiria, hala badago.

d) Zerga-identifikazioko txartelaren kopia.

e) Agindu honetan aurreikusitako laguntzez baliatzeko erakundeak edo elkarreak hartutako erabakiaren ziurtagiria.

f) Hirugarrenen alta edo horren aldaketaren fitxa, Ekonomia eta Ogasun Sailak ezarritako ereduaren arabera, honako helbide honetan eskuragai: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>; betiere, lehenengoz aurkezten diren edo banku-datuak aldaturik dituzten eskatzaileei dagokienez. Fitxa hori laguntza eman ondoren aurkeztu daiteke, beti laguntzak ordaindu baino lehen.

g) Elkartekideen liburu-erregistroaren kopia.

4.– Eskatzaileak aurkezturiko agiriei agindu honetan eskatutako baldintzak ez dituztela betetzen ikusiz gero, hala jakinaraziko dio organo kudeatzaileak eskatzaileari, eta hamar egun balioduneko epea utziko dio, okerrak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko; gainera, adieraziko dio, hala egiten ez badu, bere eskaria besterik gabe atzera botako duela, ebazpen bidez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritako eran.

5.– Eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute laguntza-eskabidea eta beharrezko dokumentazioa. Gainera, laguntza-eskabidetik eratorritako jardunetan eta prozedura osoan, eskatzaileak aukeraturiko hizkuntza baliatuko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legearen 5.2.a eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

6.– Laguntzen eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak, eta horretarako ez du eskatzaileen baimenik beharko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.3 artikulua aplikatuz. Hala ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango du baimena eta, orduan, dirulaguntzei buruzko araudian aurreikusitako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

7.– Laguntza eskatzen duen erakundeak eskabidearekin batera erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, honako alderdi hauen egiazkotasunari buruzkoa:

a) Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo beste baliabideren bat eskatu dela eta, jaso bada, administrazio edo ente publikoek nahiz pribatuek eman, horren berri ematea.

b) Ez egotea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi den eta oraindik bideratzen ari den itzultzeko edo zigortzeko ezein prozeduratan sartuta. Eskatzailea prozedura horietan sartuta egotekotan, dirulaguntzaren ematea edo ordainketa itzultzeko edo zigortzeko prozedurak amaitu arte baldintzatuta geratuko da.

c) Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzearagozten duen zehapen penalik edo administratiborik jaso ez duela eta horretarako legezko inolako debekurik ez duela agertzen dituen (Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetan seigarrenean xedatutakoaren arabera sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barnean hartuta daude).

d) Erakunde eskatzaileak ez duela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 eta 3. artikuluetan jasotako debekurik.

e) Aipatutako 39/2015 Legearen 69. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, 7. paragrafoan adierazitako alderdiak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa edukitzea. Dokumentazio hori administrazioaren esku utziko da, hala eskatzen zaionean, bai eta dirulaguntza horren gozamenak irauten duen bitartean betetzen jarraitzeko konpromisoa ere.

Erantzukizunpeko adierazpen batekin edo barnean hartuta doan edozein daturen, adierazpenen edo dokumenturen zehaztasunik ezak, faltsukeriak edo ez-egiteak, funtsezkoa bada, prozedurarekin ezin jarraitzea ekarriko du gertakari horiek jakiten diren unetik, ekar ditzakeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak alde batera utzi gabe.

8.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak, aurkeztutako eskabidea behar bezala balioesteko beharrezko jotzen duen beste edozein agiri edo argibide eskatu ahal izango du.

9. artikulua.– Kudeaketa-organoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Garraio Plangintzaren zuzendariaren ardurara izango da Agindu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

10. artikulua.– Dirulaguntzak ematea.

1.– Dirulaguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Garraio Plangintzaren zuzendariaren ebazpenaren bidez emango dira. Ebazpen horrek ez du administrazio-bidea amaituko, eta, beraz, hilabeteko epean gora

jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio administrazio bereko Azpiegitura eta Garraioetako sailburuordeari.

Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritako modua erabiliz, eta sei hilabeteko epean, agindu honek ondorioak izaten dituen egunetik hasita. Ebazpen horrek zehaztuko du dirulaguntza ematen den ala ukatu egin den; aldekoa bada, onuraduna zein den eta zenbat eman zaion azalduko da, eta kontrakoa bada, ukatzeko arrazoiak.

2.– Aurreko paragrafoan ezarritako epearen barruan ez bada jakinarazten laguntzak esleitzeko ebazpena, eskabideak ezetsiak izan direla ulertu ahal izango dute interesdunek, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan aurreikusitako ondorioei dagokienez.

3.– Laguntzak esleitzeko prozedura amaitzeko ebazpena interesdunei jakinarazteaz gain, onuradunak eta emandako zenbatekoak jasotzen dituen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

4.– Agindu honetan berariaz aurreikusi gabekoari dagokionez, honako hauen bitartez eraenduko da dirulaguntzak emateko prozedura: urriaren 1eko 39/2015 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua; eta dirulaguntzari buruzko oinarritzko araudia, hau da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hau garatzen duen Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

11. artikulua.– Ordainketa.

1.– Emandako dirulaguntza ordainketa bakar baten bidez ordainduko da, diruz lagundutako jarduera guztiz burutu ondoren eta justifikazio-kontu bat aurkeztuz egindako gastu guztiak agiri bidez justifikatu ondoren. Kontu hori egiteko, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30. artikulua biren paragrafoan eta hura garatzen duen Erregelamenduaren (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) 72. artikuluan adierazitakoa bete beharko da.

Justifikazio-kontu horrek honako alderdi hauek izango ditu:

a) Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen jarduketa-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

b) Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adierazita. Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Horrekin batera, diruz lagun daitekeen gastuaren behin betiko fakturak edo egiaztagirak aurkeztuko dira.

2.– Justifikazio-kontuaren aurkezpena 2021eko azaroaren 30a baino lehen aurkeztu beharko da.

3.– Ez da ordainketarik egingo onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez baditu edo itzulketa bidezkoa dela adierazten duen ebazpen baten bidez zordun bada.

12. artikulua.– Bateragarritasuna.

1.– Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein erakunde publiko zein pribatuk ematen duen beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin, agindu honen bidez lagundu daitezkeen gastuak estaltzeko bada.

2.– Hala ere, laguntza horiek jasotzen badira, sailak dirulaguntzarako kontuan hartutako gastuen eta beste erakunde batzuek emandako laguntzen arteko aldeari aplikatuko zaio agindu honen 3. artikuluan adierazitako gehieneko ehunekoa.

13. artikulua.– Jarduerak burutzea.

Laguntza-programan aurreikusitako jarduerak, 2021eko ekitaldian garatu behar direnak edo garatu direnak, 2021eko azaroaren 30a baino lehen gauzatu beharko dira.

14. artikulua.– Dirulaguntza jasotzen dutenen betebeharrak.

1.– Agindu honetan azaltzen diren dirulaguntzak eskuratzen dituzten elkarteek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Dirulaguntza eskuratzeko beharrezko diren eskakizun eta baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu beharko diote dirulaguntza eman behar duen Administrazioari.

b) Emandako dirulaguntza onartu beharko dute. Dirulaguntzaren berri ematen dien jakinarazpena jaso, eta hamabost eguneko epean onuradunek uko egiten ez badiote, onartu egiten dutela ulertuko da.

c) Eman zaion horretarako erabili beharko du dirulaguntza.

d) Helburu bererako beste laguntza edo dirulaguntzaren bat lortu badu, lortu duela eta nork eta zenbat eman dion jakinarazi beharko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Garraio Plangintzaren Zuzendaritzari.

e) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzen inguruan eskatzen dieten informazioa ematea.

f) Elkartearen jarduerak sustatu eta horien berri ematekoan, eta garraioaren inguruko albistetan, sexismorik gabeko hizkuntza eta irudiak erabiliko direla bermatzea.

g) Dirulaguntzen publizitatearen inguruan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 18. artikuluetan ezarritakoa bete.

h) Dirulaguntza honen finantzaketa osoarekin edo partzialarekin egindako jarduketetan, edozein bitartekoren bidez, inprimatutako materialaren bidez edo Internet bidez zabaltzea dakartenean, argi ikusteko moduan sartu behar da sail honen erakunde-logotipoa, «Honako hauek finantzatuta»:

i) Euskal herri-aginteek emandako laguntzen edo dirulaguntzen enpresa onuradun gisa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3. artikuluan jasotako berdintasun-printzipioen eta emakumeen arteko bereizkeriarik ezaren arabera jarduteko betebeharrak betetzea, eta, ondorioz, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan zehaztutako berdintasun-planak ezartzea, horiek nahitaezkoak diren kasuetan, artikulua horren arabera.

2.– 2022ko martxoaren 31 baino lehen egindako lanak eta aurrekontutik zenbat gastatu den azaltzen duen txostena, xehetasun guztiekin, bidali beharko dute Garraio Plangintzaren Zuzendaritzara erakunde onuradunek.

3.– Artikulu honen 1.e puntuan adierazitako organoen ahalmena gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak dirulaguntza jaso duen jarduerari buruz bidezko jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu.

15. artikulua.– Dirulaguntzak emateko baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako egoeraren bat aldatuz gero, onuradunak beste administrazio batzuek edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandako laguntza edo dirulaguntzak jasotzen baditu batera edo-eta helburu bererako bestelako diru-sarrera edo baliabiderik eskuratzten badu, dirulaguntza emateko agindua ere aldatu egin ahal izango da, betiere deialdi honetan onuradun izateko ezarritako eskakizunak betetzen jarraitzen badu.

16. artikulua.– Dirulaguntzak itzultzea.

Onuradunak ez badu betetzen agindu honetan, dirulaguntza emateko aginduan edo aplikatu beharreko gainontzeko arauetan ezarritako baldintzaren bat, organo aginpidedunak, onuradunari entzun ondoren, laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat deklaratu du, eta, halakorik izanez gero, dagokion diru kopurua Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzultzera behartuko du, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak, eta dirulaguntzetarako betebeharrak betetzen direla zaintzeko gainontzeko arauak ezarritakoa betetzeko. Kopuru hori diru-sarrera publikotzat joko da legezko ondorioetarako. Horrek guztiak ez du galaraziko, ordea, bestelako zehapenak jartzea, eta kalteengatiko ordainak eta, halakorik izanez gero, erantzukizun penala ere eskatzea.

Halaber, itzultzeko arrazoen inguruan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 37. artikuluan xedatutakoa aplikagarria izango da; kasu honetan jasotako zenbatekoak, osorik edo partez, eta dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Agindu hau errekurritzeko ezarritako epea agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honetan aipatzen diren dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren arabera egin dira: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategina). Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan jasotako oinarrizko araudia.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 22a.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

I. ERANSKINA

ESKABIDE-EREDUA ELKARTEGINTZA BULTZATZEKO LAGUNTZAK

I.– Identifikazio datuak.

a) Titularra.

IFZ/IFK:
 Erakundearen izendapena:
 Telefonoa : Faxe:
 Helbide elektronikoa:

b) Ordezkarria.

Lehen abizena: Bigarren abizena:
 Izena: IFZ/AIZ:
 edo
 IFK/IFZ:
 Erakundearen izena:

II.– Helbide datuak.

Helbidea:
 Lurraldea Udalerria:
 Posta-kodea:

III.– Jakinarazpenetarako datuak.

Jakinarazpenetarako bidea:

Telematika

Oharrak:

Posta elektronikoa:
 SMS:

IV.– Jakinarazpenetarako aukeratutako hizkuntza.

Gaztelania.

Euskara.

V.– Erantzukizunpeko adierazpenak (markatu x batez):

Aurten ez dut jaso beste administrazio batek edo erakunde pribatu batek xede eta helburu bererako emandako laguntzarik.

edo

Beste laguntza bat ere jaso dut: Zenbatekoa:€ Laguntza eman didan administrazioa:.....

edo

Beste laguntza bat eskatu dut, baina oraindik ebazpena jasotzeko zain nago. Eskatutako laguntzaren zenbatekoa:€ Administrazioa:

- Ez nago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo erakunde autonomoek emandako ezaugarri bereko beste laguntza edo dirulaguntza batzuen esparruan hasi zen eta oraindik bideratzen ari den itzultzeko edo zigortzeko ezein prozeduratan.
- Ez zait ezarri dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zigor administratiborik edo penalik, eta ez daukat horretarako legezko inolako debekurik (Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne).
- Ez zait ezarri Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 3. artikuluetan jasotako debekurik.
- 39/2015 Legearen 69. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, V. paragrafo honetan adierazitako betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa daukat. Dokumentazio hori Administrazioaren esku utziko da, hala eskatzen zaionean, bai eta diru-laguntza horren gozamenak irauten duen bitartean betetzen jarraitzeko konpromisoa ere.

VI.– Administrazioak ofizioz egiaztatzea (markatu x batez aurka egonez gero):

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honen organo instrukzio-egileak honako datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunear:

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen datuak (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia).
- Zerga-betebeharrak egunean izatearen datuak (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia).
- Prozedura honen instrukzio-organok ofizioz egiaztatzearen aurka nago (39/2015 Legearen 28. artikulua).

Aurka egonez gero, prozeduran eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko ditu.

VII.– AURKEZTUTAKO AGIRIAK (markatu x batez):

- Azalpen memoria zehatza, II. eta III. eranskinetan datozen ereduaren arabera.
- Eraketa-aktaren kopia.
- Administrazio-organoren eskudunaren ikus-onetsitako estatutuen kopia.
- Erakundea batasun, federazio edo bestelako erakunderen batean sarturik dagoela egiaztatzen duen agiria, hala badago.
- Zerga-identifikazioko txartelaren kopia.
- Agindu honetan aurreikusitako laguntzez baliatzeko, erakundeak edo elkarteak hartutako erabakiaren ziurtagiria.

Hirugarrengoen alta edo horren aldaketaren fitxa, Ogasun eta Ekonomia Sailak ezarritako ereduaren arabera; betiere, lehengoaz aurkezten diren edo banku-datuak aldatuak dauzkaten eskatzaileei dagokienez.

Elkartekideen liburu-erregistroaren kopia.

VIII.– Datu pertsonalak babestea.

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak garraioan jarduera uzteagatik laguntzak izeneko tratamendu-jardueran tratatu eta sartuko dira.

• Arduraduna: Eusko Jaurlaritzako Garraio Plangintzaren Zuzendaritza.

• Helburua: Garraio Plangintzaren arloko laguntzen kudeaketa eta ematea.

• Legitimazioa: Aplikatu beharreko legeko betebeharrak betetzeko eta interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzeko beharrezko tratamendua.

• Hartzaileak: datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legeak hala agintzen ez badu.

• Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.

• Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza gure webgunean kontsulta dezakezu: <https://www.euskadi.eus/rqpd/0029306>

Honako hauek betetzeko:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf>).
Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (<https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf>).

Halaber, jakinarazten dizugu banku-datuak eta posta komunikazioetarako datuak Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ordainketak egiteko kudeatzen duen hirugarrenen erregistroan gordeko direla.

Administrazio Publikoak erkatu egin ahal izango ditu aurkeztutako datuak, bai eta egoki ikusten dituen egiaztapenak egin ere, laguntza behar bezala esleitzeko.

Data:.....

Sinadura:

2021eko uztailaren 2a, ostirala

II. ERANSKINA

GASTU MOTAK

..... entitateak laguntza eskatzen du
gastu hauetarako:

Gastu motak	Diru-sarrerak, kontzeptuka	Gastuak, kontzeptuka
<input type="checkbox"/> Azterlanak, prestakuntza-jarduerak eta sustapen- eta hedapen-ekintzak		
<input type="checkbox"/> Azokak eta lehiaketak antolatzea eta horietan parte hartzea		
<input type="checkbox"/> Langile-gastuak		
<input type="checkbox"/> Funtzionamendu-gastuak		
Guztira	Sarrerak guztiraeuro	Gastuak guztiraeuro

Lekua eta data:, 2021ekoaren(a)

Legezko ordezkariaren sinadura

2021eko uztailaren 2a, ostirala

III. ERANSKINA

AZALPEN-MEMORIA

Entitatea:.....

Garatu beharrekoak:

- 1) Eskatzailearen jarduerari buruzko azalpen-memoria.
- 2) Ekitaldirako dirusarreraren eta gastuen aurrekontua.
- 3) Eskabidea aurkezten denean zenbat pertsona eta enpresa elkartu, eta zenbat ibilgailu biltzen dituzten.
- 4) Giza baliabideen azalpena (entitatearen langile eta lankideena) eta baliabide materialena (lokaleen kopurua, bulegoak, kokalekua, etab.).
- 5) 2021ean egin dituen edo egitea aurreikusten duen jarduerak eta ekimenak, eskatutako gastu diruz lagungarrien arabera.

Jarduerak	Izena	Egunak
Ikasketak		
Ikastaroak		
Jardunaldiak		
Argitalpenak eta sustapen-ekintzak		
Azokak eta erakustaldiak		
Berdintasun-planak		
Besterik		

- 6) Emakumeen ehunekoa zuzendaritza-organoetan (emakumeen kopurua eta karguak).

7) Laguntzaren premia eta zenbatekoa ebaluatzeko baliagarriak izan daitezkeen gainerako kontu guztiak.

Aurreko puntu guztiak bete beharko dira zehaztasunez, balorazio egokia egiteko. Betetzen ez diren puntuak ez dira baloratuko.

Lekua eta data:, 2021ekoaren(a).